

Haurdunaldiko arriskuekin eta edoskitzaroarekin lotutako prestazio ekonomikoak

Prestazioa eskatzeko baldintzak

- Gizarte Segurantzaren alta egoeran egotea.
- Haurdun egotea edo edoskitzaro naturalean izatea.
- Haurdunaldirako edo edoskitze naturalerako arriskutsua den lanpostuan lan egitea.
- Enpresan emakume langilearen egoerarekin bateragarria den beste lanposturik ez egotea

Iraupena

Hasiera: lan kontratuaren etenaldia hasten den egunetik hasita.

Amaiera, ondoko hauen aurreko egunean:

- Amatasunagatik kontratuaren etenaldiaren hasiera.
- Jatorrizko lanpostuan edo bere egoerarekin bateragarria den beste lanpostu batean lanean hasia.
- Kontratua iraungitzea .
- Haurdunaldia etetea
- Ama haurdunaren/edo bular emailearen heriotza.
- Bularreko umearen heriotza.
- Seme/alabak 9 hilabete betetzen dituenean (edoskitzaroa).

Prestazioen izapidetzea

Prestazioa izapidetu aurretik, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 26. artikulua ezartzen dituen ekintzak gauzatu beharko ditu enpresaburuak, amatasuna babesteko. Besteak beste:

-Haurdun, edoskitze aroan edo erditu berri dagoen langileen lanpostuetako arriskuak ebaluatzea eta berriaz jasota edukitzea emakumearen edo fetuaren osasunean eragin negatiboa izan dezaketen eragileen esposizioaren, prozeduren eta lan baldintzen izaera, maila eta iraupena.

-Arriskuen berriazko ebaluazioaren arabera, enpresaburuak lanpostuaren baldintzak edo lanaren iraupena egokitu beharko ditu, arriskuak deuseztatzeko edo minimizatzeko, haurdun edo edoskitzaroan dagoen emakumearentzat jasangarriak izan daitezten.

-Ezin direnean lan baldintzak edo lanaren iraupena egokitu, edo egokitu arren, lanpostuaren baldintzek eragin negatiboa izan dezaketenean haurdun dagoen emakumearen edo fetuaren osasunean, langileak egoerarekin bateragarria den beste lanpostu edo eginkizun bat gauzatu beharko du.

-Enpresaburuak halako arriskurik ez duten lanpostuak zehaztu behar ditu, langileen ordezkariari galdetu ondoren. La tramitación de la prestación de riesgo durante el embarazo y durante la lactancia natural consta de dos fases: Valoración del riesgo y, en su caso, abono de la prestación.

Haurdunaldiko eta edoskitzaro naturalaren arriskuengatik prestazioa bi fasetan izapidetzen da:

Arriskuaren balorazioa eta, hala badagokio, prestazioa ordaintzea.

❖ 1. fasea: Arriskua baloratzea

Langilea artatzen duen Osakidetzako ginekologoak edo familiako medikuak igorri beharko du. Zer haurdunaldi astetan dagoen eta erditzea noiz izan litekeen zehaztuko du. Edoskitze naturalari dagokion prestazioaren eskaera bada, medikuaren txostenak adierazi beharko du egoera horretan dagoela.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

-Ziurtagiri medikoa eskatzea haurdunaldiaren edo edoskitze naturalaren arriskuagatik

-NANaren edota antzeko dokumenturen baten fotokopia.

-Osasun zerbitzu publikoko medikuaren txostena, haurdunaldia/edoskitze naturala ziurtatuz.

- Egindako jarduerari buruzko langilearen aitortpena.

-Lanpostuak dituen lan-arriskuen ebaluazioa.

-Familia liburuaren fotokopia (edoskitzaro naturalaren prestazioa jasotzeko soilik).

-Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren erabakiaren fotokopia, amatasunagatiko prestazioarena (edoskitzaro naturalagatiko prestaziorako bakarrik).

Dokumentazioa aurkeztu ondoren, Mutualiako zerbitzu medikua langilearekin harremanetan jarriko da lanpostuko arriskua balioztatzeko. Era berean, Mutualiako prebentzioko teknikari bat enpresarekin harremanetan jarri ahal izango da –bisitaldia egiteko aukera ere bada–, emandako datuak egiaztatzeko.

Ziurtagiri bat positiboa bada –alegia, arriskua badago– eta enpresak egiaztatzen badu ez duela langilearen egoerarekin bateragarria den lanposturik, langile autonomoak lan-jarduera eten ahal izango du, eta prestazioa eskatu beharko du haurdunaldiaren edo edoskitzaroaren arriskuagatik.

Dena dela, prestazio horren erregelamendua onartzen duen martxoaren 6ko 295/2009 Errege Dekretuko 39.6 artikulua araberak, kontraesanik aurkituz gero enpresak adierazitakoaren eta mutualitateak egindako egiaztapenaren artean edo prestazioa jaso ahal izateko langilea eta enpresa ados jarri izanaren frogarik aurkituz gero, Gizarte Segurantzaren Lan Ikuskaritzari txostena eskatu ahalko zaio, enpresak hartutako neurriekin ados dagoen edo ez adieraz dezan eta langileak haurdunaldiko arriskuagatik diru-laguntza jasotzeko eskubidea duen zehaztu dezan.

❖ **2. fasea: Prestazioaren ordainketa**

Prestazioa ordaintzeko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Lanpostu bateragarri eza ziurtatzen duen empresa agiria, eta kontratuaren etenaldiaren hasiera.

-Prestazio-eskaera haurdunaldiaren edo edoskitzaro naturalaren arriskuagatik.

-Langileari buruzko enpresaren ziurtagiria.

-NANaren edo indarrean den antzeko dokumenturen baten fotokopia.

Dokumentazioa Mutualiako edozein zentrotan aurkeztu liteke, baita emailaren edota faxaren bitartez ere. Nahi izanez gero, Mutualiaren prebentzio-teknikari baten deia ala bisita jaso dezakezu, zure kasua azter dezan.

www.mutualia.es	ZENTRALITA 902 540 250
BIZKAIA Henao, 26. 48009 Bilbo T: 94.404.21.02 Fax: 94.404.21.03 erandioprestaciones@mutualia.es	ARABA Beato Tomás de Zumárraga, 10-bis. 01008 Vitoria-Gasteiz T: 945.00.90.70 Fax: 945.00.90.91 prestacionesvi@mutualia.es
GIPUZKOA Camino, 1-1º-2º. 20004 Donostia T: 943.42.65.00 Fax: 943.43.01.53 prestacioneseconomicasgipuzkoa@mutualia.es	MADRID Francisco Gervás, 12. 28020 Madrid T: 91.567.03.71 Fax:91.579.36.04 madridprestaciones@mutualia.es